

## Patenteetan aditu ikastaroa.

2010/04/20

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak antolatutako Patenteetan aditu ikastaroaren aurkezpena, joan zen ostiralean egin zen Garaia Berrikuntza guneko instalazioetan eta uztailaren 7ra arte iraungo du. Era berean, ikastaro hau Bizkaia-Zamudioko, Gipuzkoa-Miramoneko eta Araba-Miñanoko parke teknologikoetan emango da.

Ikastaro hau SPRIrekin batera antolatu den ekimena da, Euskadin SPRI lider den Europako Batzordeko **Enterprise Europe Networks** sareko helburuen barnean kokatzen da.

SPRIk interes handiko ikastaroak direla uste du, bi urteetan 80 teknikari egongo baitira honako gai hauetan prestatuta:

- Patenteak, erabiltzeko ereduak, diseinua eta marka komertzialak bezalako gaietan enpresan aukerak detektatzeko metodologia.
- Aukera hauen garapena, Jabetza Industrialeko eskaerak egiteko.
- Prospektiba teknologikoa. Patenteen mundu-bilaketa.
- Euskadiko ekonomiarentzat interesgarriak diren puntako teknologien ebaluazioa.
- Enpresako Jabetza Industrialia kudeatzeko metodologia.
- Mundu mailan Jabetza Industrialeko eskaeren aurkezpenetan eta erregistroetan egon diren praktika onak.

